

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*4/2021 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 27koa, TicketBAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa.*

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, derrigorrezko egin zuen zergadunek fakturazio sistemetan tresna teknologiko berrien bidez neurri teknologiko aurreratuak erabiltzea, betiere pertsona juridikoen eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen tributazioaren kontrola ahalbideratzeko asmoz. Horretarako, aipatutako xedapenen bitartez, aldatu egin ziren Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak.

Izan ere, obligazio horrek berekin dakar ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko dituen sistema informatiko bat erabiltzea.

Fakturazio terminalen sistema berriak eskatutako egokitzapenak eragin ekonomikoa sortzen duenez, haren modua edozein izanik ere, pertsona juridikoen gaur egun beren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak fakturatzeko erabiltzen dituzten sistema informatikoen gainean, eta betiere pertsona horietako gehienak TicketBAI indarrean jarri eta ondorioak izan aurretik beren borondatez sistemara bildu daitezzen, 3/2020 Foru Arauaren bidez aldi baterako zerga pizgarriak ezarri ziren sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkorren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, kuotan 100eko 30eko kenkaria egiteko aukera emanez.

Bestetik, 3/2020 Foru Arauan jasotako zerga onurak areagotu egin zituen, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea bultzatzeko asmoz, martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauk, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituenak.

Izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasota dagoen kenkaria, 3/2020 Foru Arauaren bidez ezarria, 100eko 60raino areagotu zen. Hura pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei ere aplikatuko zaie, baldin eta beren borondatez obligazioa betetzea 2021eko azaroaren 1era aurreratzen badute.

Gainera, foru dekretu-arau horri esker, txikizkako merkatariaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatzea ahalbidetu zen, zeina jasota zegoen bai COVID-19ren osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzera bideratutako koiunturazko tributu neurriei buruzko maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauaren 15. artikuluan eta bai COVID-19aren bigarren olatuak

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

*Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI.*

La Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, implantó, mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes y la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de los contribuyentes a través de nuevos instrumentos tecnológicos en los sistemas de facturación, que permitirá el control de la tributación de las personas físicas que desarrollen actividades económicas y de las personas jurídicas.

Se trata de la obligación de utilización de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, denominada obligación TicketBAI.

Dado el impacto económico que la adaptación requerida por el nuevo sistema de los terminales de facturación supone, en cualquiera de sus formas, sobre los sistemas informáticos que en la actualidad utilizan las personas físicas y jurídicas para facturar sus entregas de bienes o prestaciones de servicios, y a fin de que el mayor número de estas personas se incorporen de manera voluntaria con anterioridad a la fecha de la entrada en vigor y efectos del sistema TicketBAI, la citada Norma Foral 3/2020 estableció incentivos fiscales de carácter temporal en el impuesto sobre sociedades, en el impuesto sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes y en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, en forma de deducción en la cuota de un 30 por 100.

Por su parte, el Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, de medidas tributarias extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación y digitalización de la actividad económica, con el objeto de impulsar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI, incrementó los beneficios fiscales contemplados en la citada Norma Foral 3/2020.

Así, la deducción prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, introducida por la referida Norma Foral 3/2020 se incrementó hasta el 60 por 100. Ello será igualmente aplicable, a las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que anticipen voluntariamente el cumplimiento de la obligación al 1 de noviembre de 2021.

Además, el citado decreto foral-norma posibilitó aplicar la deducción para la transformación digital del comercio minorista, prevista tanto en el artículo 15 del Decreto Foral Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, como en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma

eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 15. artikuluan. Hori horrela, aipatutako kenkaria lehenago adierazitako kenkari areagotuaren espezialitate bereberekin aplikatzen da, TicketBAI obligazioa borondatez 2021eko azaroaren 1aren aurretik betetzeagatik.

Lehenago azaldutakoaren arabera, kenkariak gehitzearen xedea TicketBAI obligazioa borondatez betetzea bultzatzea zen. Halere, nahiz eta mesedegarria izan TicketBAI obligazioak borondatez 2021eko azaroaren 1aren aurretik betetzea aukeratzeko zergadunentzat, kenkariaren gehikuntza hori ez zen onuragarria beste zergadun batzuentzat, baldin eta obligazioa borondatez betetzea aukeratzeko bazuten data horretatik TicketBAI derrigorrezkoa izan arte, betiere TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduari buruzko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean jasotako ezarpen egutegiaren arabera.

Testuinguru horretan, zergadun jakin batzuek kenkari areagotuaren onura izango dute, zehazki haien jardueraren epigrafearen arabera TicketBAI obligazioa 2022ko urtarrilaren 1ean bete behar duten zergadunek, nahikoa baitute betebeharraren ezarpena bi hilabetez aurreratzea. Beste zergadun batzuek, ordea, ezin izango dute zerga onura areagotua aplikatu, baldin eta ezarpen egutegiaren arabera TicketBAI obligazioa martxo, maiatz, urri edo abenduaren 1ean exijigarria bazaie eta ezarpena exijigarritasun datatik harago aurreratzen badute, baina 2021eko azaroaren 1aren ondoren.

Tratamendu desberdin hori arintzeko, foru dekretu-arau honetako 1. eta 2. artikuluen asmoa da aldatzea bai TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkaria eta bai txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari areagotua. Bi kenkari horiek 2/2021 Foru Dekretu-Arauaren 4. eta 5. artikuluetan onartuta daude, hurrenez hurren, betiere haiek aplikatzeko eskubidea izan dezaten zergadunek, baldin eta beren borondatez aukeratzeko badute TicketBAI obligazioa derrigorrezko data baino gutxienez hilabete bat lehenago betetzea.

Bestetik, 2/2021 Foru Dekretu-Arauaren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan, kenkariak 2020an izango dituzten ondorioak ezartzen dira. Beraz, beharrezkoa da haien edukia egokitztea ere.

Gainera, TicketBAI obligazioa betebeharraren orokor gisa eratu da, zeinak pertsona fisikoaren arloan jardueraren ekonomikoak egiten dituzten pertsona guztiei eragiten baitie eta, pertsona juridikoaren arloan, aldi, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak egiten dituzten pertsona guztiei, betiere kontuan hartu gabe haiek ustiapen ekonomiko baten barruan edo kanpoan egiten diren.

TicketBAI betebeharraren orokortzeari buruzko ezaugarri hori ezarrita ere, badira obligazioa betetzea salbuesteko kasu tasatu jakin batzuk. Partikulariki, sozietateen gaineko zergaren zergadunei dagokienez, ezartzen da partzialki salbuestitako entitateak obligazio hori bete beharko dutela, baldin eta soilik zergaren zerga oinarrian sartu behar diren eragiketarik egiten badituzte.

Hori horrela, sozietateen gaineko zergaren autoliquidazioa aurkezteko betebeharrari dagokionez, zergaren foru arauak xedatzen du bere 12. artikuluan 2. apartatuan aipatutako entitate partzialki salbuestiak ez direla aitorpena aurkeztera derrigorretan egongo beharkizun batzuk betetzen dituztenean. Alegia: beren sarrera guztiak urteko 10.000 eurotik beherakoak izatea; atxikipenari lotutako errenta ez-salbuestiei dagozkien sarrerak urteko 2.000 eurotik beherakoak izatea; eta berek lortzen dituzten errenta ez-salbuesti guztiak atxikipenari lotuta egotea.

11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19, con las mismas especialidades que la antes citada deducción incrementada, por el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad al 1 de noviembre de 2021.

Según lo anteriormente expuesto, la finalidad de este incremento de las deducciones era impulsar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI, que si bien beneficiaba a aquellos contribuyentes que optasen por el cumplimiento de la obligación TicketBAI de forma voluntaria antes del 1 de noviembre de 2021, no lo hacía con respecto a los que optasen por dicho cumplimiento de la obligación de forma voluntaria con posterioridad a esta fecha hasta que la misma resultase de obligado cumplimiento, de acuerdo con el calendario de implantación establecido por la disposición transitoria única del Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI.

En este contexto, resulta que determinados contribuyentes, en concreto aquellos que según el epígrafe en que queda comprendida su actividad deban cumplir con la obligación TicketBAI el 1 de enero de 2022, con solo adelantar dos meses de forma voluntaria la implantación de la misma, se podrán ver beneficiados por la deducción incrementada. Mientras que otros contribuyentes a los que será exigible dicho cumplimiento, según el citado calendario de implantación, el día 1 de los meses de marzo, mayo, octubre o diciembre, que adelanten dicha implantación más allá de los dos meses de la fecha de su exigibilidad, pero con posterioridad al 1 de noviembre de 2021, no podrán disfrutar del incrementado beneficio fiscal.

Para paliar este distinto tratamiento, los artículos 1 y 2 del presente decreto foral-norma pretenden modificar la deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI y la deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista reguladas, respectivamente, en los artículos 4 y 5 del antes citado Decreto Foral-Norma 2/2021, para que tengan derecho a su aplicación aquellos contribuyentes que opten por anticipar de forma voluntaria el cumplimiento de la obligación TicketBAI, como mínimo un mes con respecto a la fecha en que les resulte de obligado cumplimiento.

Por su parte, las disposiciones adicionales primera y segunda del citado Decreto Foral-Norma 2/2021 establecen los efectos de las deducciones durante 2020. De modo que se hace necesario igualmente adaptar el contenido de las mismas.

Por otro lado, la obligación TicketBAI se ha configurado como una obligación general que, en el ámbito de las personas físicas, afecta a todas aquellas personas que realicen actividades económicas y, en el ámbito de las personas jurídicas, afecta a todas las que realicen entregas de bienes y prestaciones de servicios, con independencia de que las mismas se realicen en el ámbito de una explotación económica o fuera de la misma.

No obstante esta característica de generalización de la obligación TicketBAI, existen determinados supuestos tasados de excepción del cumplimiento de la obligación. En particular, en cuanto a los contribuyentes del impuesto sobre sociedades se refiere, se establece que las entidades parcialmente exentas estarán sometidas a esta obligación exclusivamente por las operaciones cuyas rentas deban integrarse en la base imponible del impuesto.

Siendo ello así, por lo que a la obligación de presentar la autoliquidación del impuesto sobre sociedades se refiere, la norma foral del impuesto dispone que las entidades parcialmente exentas a que se refiere el apartado 2 de su artículo 12, no tendrán la obligación de presentar declaración cuando cumplan determinados requisitos. A saber: que sus ingresos totales no superen los 100.000 euros anuales; que los ingresos correspondientes a rentas no exentas sometidas a retención no superen 2.000 euros anuales; y que todas las rentas no exentas que obtengan estén sometidas a retención.

Erregulazio hori dela eta, 2.000 eurotik beherako eragiketa ez-salbuetsiak eta atxikipenari lotuak dituzten entitate partzialki salbuetsiek TicketBAI obligazioa bete behar dute eragiketa horientatik, nahiz eta sozietateen gaineko zergan autolikidaziorik aurkeztera derrigortuta ez egon.

Beraz, foru dekretu-arau honen bidez, inkongruentzia hori ezabatu nahi da, bai eta TicketBAI obligazioa betetzea salbuesteko kasua zabaldu ere, entitate partzialki salbuetsiak sozietateen gaineko zergaren autolikidaziorik aurkeztera derrigortuta ez ego-tearekin bat etor dadin.

Horrela, aurreko lehen zergaldian sozietateen gaineko zergan autolikidaziorik aurkeztera derrigortuta ez zeuden entitate partzialki salbuetsiak uneko zergaldian ere ez dira TicketBAI obligazioa betetzera derrigortuta egongo.

Bada, foru dekretu-arauaren 3. artikulua bidez, aldatu egiten da sozietateen gaineko Zergaren foru arauaren 122 bis artikulua, TicketBAI obligazioa betetzetik salbuetsita gelditu daitezen aurreko zergaldian sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztera derrigortuta ez zeuden entitate partzialki salbuetsiak.

Proposatutako neurrien izaerak eta egungo egoerari lehenbailehen erantzun beharrak beharrezko egiten dute era horretako neurriak presako bidetik onartzea foru dekretu-arau baten bidez.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, premiazko eta aparteko arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen horiek foru dekretu arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari eragin. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

*1. artikulua. TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko kenkaria.*

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek, baldin eta, batetik, eskubidea badute ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkaria, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa, aplikatzeko eta, bestetik, TicketBAI obligazioa gutxienez hilabete bat lehenago betetzea aukeratzeko badute beren borondatez, kenkari hori aplikatu ahal izango dute, xedapen horretan zehaztutako termino eta baldintzetan, betiere berezitasun hauek aplikatuta:

a) Aipatutako hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren lehen paragrafoan jasotako kenkariaren oinarria paragrafoan bertan aipatutako inbertsio eta gastuen zenbatekoaz osatuta egongo da, betiere haiek gauzatuak badira TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduari buruzko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak xedapen iragankor bakarrean jasotako ezarpen egutegiaren arabera obligazioa derrigorrez betetzea egokitu aurretik.

b) Hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan aipatzen den kenkari portzentajea 100eko 60 izango da.

Ante esta regulación, nos encontraríamos con que aquellas entidades parcialmente exentas que tengan operaciones no exentas y sometidas a retención inferiores a 2.000 euros, deban de cumplir con la obligación TicketBAI por dichas operaciones, aun no estando obligadas a presentar autoliquidación por el impuesto sobre sociedades.

Pues bien, por medio del presente decreto foral-norma se pretende eliminar esta incongruencia y ampliar el supuesto de exención del cumplimiento de la obligación TicketBAI, para hacerlo coincidir con la antes señalada no obligación de presentar autoliquidación del impuesto sobre sociedades por parte de las entidades parcialmente exentas.

De esta forma, las entidades parcialmente exentas que el período impositivo inmediato anterior no tuvieran la obligación de presentar autoliquidación por el Impuesto sobre Sociedades, tampoco estarán sujetas a la obligación TicketBAI durante el período impositivo corriente.

Así, el artículo 3 del decreto foral-norma modifica el artículo 122 bis de la norma foral del impuesto sobre sociedades para eximir del cumplimiento de la obligación TicketBAI a las entidades parcialmente exentas que durante el período impositivo anterior no tuvieran la obligación de presentar la autoliquidación del impuesto sobre sociedades.

La naturaleza de las medidas propuestas y la necesidad de dar una respuesta urgente a la situación del momento, obliga a aprobar las medidas a través del procedimiento de urgencia y mediante un decreto foral-norma.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de urgencia, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

#### DISPONGO

*Artículo 1. Deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI.*

1. Los contribuyentes del impuesto sobre sociedades que tengan derecho a la aplicación de la deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y que anticipen de forma voluntaria un mínimo de un mes el cumplimiento de la obligación TicketBAI, podrán aplicar dicha deducción, en los términos y condiciones especificados en la misma, con las siguientes especialidades:

a) La base de la deducción a que hace referencia el primer párrafo del apartado 2 de la citada disposición adicional vigesimosegunda estará constituida por el importe de las inversiones y los gastos mencionados en el mismo, realizados con anterioridad al momento en que les resulte de obligado cumplimiento con arreglo al calendario de implantación previsto en la disposición transitoria única del Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI.

b) El porcentaje de deducción a que hace referencia el apartado 1 de la citada disposición adicional vigesimosegunda será del 60 por 100.

c) Hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2.b) apartatuan aipatzen diren zenbatekoak 1.500 euro izango dira.

Berezitasun horiek aplikatzeko, zergadunek beren borondatez aurreratutako obligazioa betetzen jarraitu behar dute, harik eta ezarpen egutegiaren arabera derrigorrez bete beharra egokitu arte.

2. Kenkari hori aplikatzen duten zergadunek ezingo dute hogeita bigarren xedapen gehigarri horretan jasotako kenkaria aplikatu ezarpen egutegiaren arabera derrigorrez bete beharra egokitzen zaienetik aurrera egindako inbertsio eta gastuengatik.

3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta eskubidea badute Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoari jarraikiz, hurrenez hurren, aurreko 1. apartatuan aipatutako hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatzeko, kenkari hori aplikatu ahal izango dute, aurreko apartatuetan jasotako berezitasun eta beharkizunak beteta.

Horretarako, ulertuko da aurreko 2. apartatuan hogeita bigarren xedapen gehigarria bidalitakoa aurreko apartatuan aipatutako hogeita hamaseigarren eta hamargarren xedapen gehigarrietara bidalita dagoela.

*2. artikulua. Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI betebeharra borondatez betezea sustatzeko.*

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta, batetik, eskubidea badute COVID-19aren osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzera bideratutako koiunturazko tributu neurri buruzko maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Araua 15. artikuluan eta COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurri buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Araua 15. artikuluan jasotako txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkariak aplikatzeko eta, bestetik, TicketBAI obligazioa gutxienez hilabete bat lehenago betetzea aukeratzen badute, kenkari hori aplikatu ahal izango dute, aurreko apartatuetan jasotako termino eta baldintzetan, betiere berezitasun hauek aplikatuta:

a) Aipatutako 15. artikuluen 3. apartatuaren lehen paragrafoan jasotako kenkariaren oinarria haietan aipatutako inbertsio eta gastuen zenbatekoaz osatuta egongo da, betiere haiek gauzatuak badira TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduari buruzko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak xedapen iragankor bakarrean jasotako ezarpen egutegiaren arabera obligazioa derrigorrez betetzea egokitu aurretik.

b) 15. artikuluko horien 1. apartatuan aipatzen den kenkari portzentajea 100eko 60 izango da.

c) 15. artikuluko horien 3.b) apartatuan aipatzen diren zenbatekoak 1.500 euro izango dira.

Berezitasun horiek aplikatzeko, zergadunek beren borondatez aurreratutako obligazioa betetzen jarraitu behar dute, harik eta ezarpen egutegiaren arabera derrigorrez bete beharra egokitu arte.

c) Las cantidades de 500 euros a las que se refiere el apartado 2.b) de la citada disposición adicional vigesimosegunda serán de 1.500 euros.

Para aplicar dichas especialidades, los contribuyentes deberán continuar cumpliendo la obligación anticipada voluntariamente, hasta que les resulte preceptivo su cumplimiento con arreglo al citado calendario de implantación.

2. Los contribuyentes que apliquen esta deducción no podrán aplicar la deducción prevista en la citada disposición adicional vigesimosegunda por las inversiones y gastos realizados con posterioridad al momento en que les resulte preceptivo su cumplimiento con arreglo al citado calendario de implantación.

3. Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que por remisión de la disposición adicional trigésima sexta de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y la disposición adicional décima de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, respectivamente, tengan derecho a aplicar la deducción establecida en la disposición adicional vigesimosegunda citada en el apartado 1 anterior, podrán aplicar dicha deducción con las especialidades y requisitos establecidos en los apartados anteriores.

A estos efectos, la remisión a la disposición adicional vigesimosegunda realizada en el apartado 2 anterior se entenderá realizada a las disposiciones adicionales trigésima sexta y décima mencionadas en el párrafo anterior.

*Artículo 2. Deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI.*

Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejerzan actividades económicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que tengan derecho a la aplicación de las deducciones para la transformación digital del comercio minorista previstas en los artículos 15 de los Decretos Forales-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, y 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19, y que anticipen de forma voluntaria un mínimo de un mes el cumplimiento de la obligación TicketBAI, podrán aplicar dicha deducción, en los términos y condiciones especificados en los mismos, con las siguientes especialidades:

a) La base de la deducción a que hace referencia el primer párrafo del apartado 3 de los citados artículos 15 estará constituida por el importe de las inversiones y los gastos mencionados en los mismos, realizados con anterioridad al momento en que les resulte de obligado cumplimiento con arreglo al calendario de implantación previsto en la disposición transitoria única del Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI.

b) El porcentaje de deducción a que hace referencia el apartado 1 de los citados artículos 15 será del 60 por 100.

c) Las cantidades de 500 euros a las que se refiere el apartado 3.b) de los citados artículos 15 serán de 1.500 euros.

Para aplicar dichas especialidades, los contribuyentes deberán continuar cumpliendo la obligación anticipada voluntariamente, hasta que les resulte preceptivo su cumplimiento con arreglo al citado calendario de implantación.

**3. artikulua. Aldatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua.**

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, azken para-grafo bat gehitzen zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. apartatuari. Hona hemen haren edukia:

«Dena den, aurreko apartatuan aipatutako entitate partzialki salbuetsiek ez dute bete behar hori izango aurreko lehen zergaldian zerga honetan aitortzen aurkeztera behartuta egon ez direnean foru arau honek 126. artikuluan jasotako behar-kizunak betetzeagatik.»

*Lehen xedapen gehigarria. 2020an egindako inbertsio eta gastuetarako TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aplikazioa.*

1. Sozietateen gaineko zergadunek foru dekretu-arau honetako 1. artikuluan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango dute, haren terminoetan, 2020an egindako inbertsio eta gastuengatik, ez ekitaldi horri dagokion autoliquidazioan baizik eta ondoko lehen ekitaldiko autoliquidazioan, baldin eta aplikatu badute ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkaria, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotakoa.

Kasu horretan, zergadunek aurreko ekitaldian inbertsio eta gastu horietatik berengatik sortutako kenkariaren zenbatekoa deskontatu beharko dute, hain zuzen ere ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkariari dagokiona (aipatutako xedapen gehigarrian jasota dago).

2. Era berean, aurreko apartatuan xedatutakoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei ere aplikatuko zaie, 2020an egindako inbertsio eta gastuengatik, baldin eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren bidalketarengatik, hurrenez hurren, 2/2014 Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatu badute.

*Bigarren xedapen gehigarria. Txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBAI bete beharra borondatez betetzea sustatzeko.*

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek foru dekretu-arau honetako 2. artikuluan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango dute, haren terminoetan, 2020an egindako inbertsio eta gastuengatik, ez ekitaldi horri dagokion autoliquidazioan baizik eta ondoko lehen ekitaldiko autoliquidazioan, baldin eta aplikatu badute COVID-19aren osasun larrialdia ondoren ekonomia suspertzerako bideratutako koiunturazko tributu neurriei buruzko maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Araua 15. artikuluan jasotako txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria.

Kasu horretan, zergadunek aurreko ekitaldian inbertsio eta gastu horiek berengatik sortutako kenkariaren zenbatekoa des-

**Artículo 3. Modificación de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se añade un último párrafo al apartado 1 del artículo 122 bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con el siguiente contenido:

«No obstante, las entidades parcialmente exentas a que se refiere el párrafo anterior no estarán sometidas a esta obligación cuando en el período impositivo inmediato anterior no hubiesen tenido obligación de presentar declaración por este impuesto por cumplir los requisitos previstos en el artículo 126 de esta norma foral.»

*Disposición adicional primera. Aplicación de la deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI para gastos e inversiones realizados en 2020.*

1. Los contribuyentes del impuesto sobre sociedades que hayan aplicado la deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, podrán aplicar en sus términos la deducción prevista en el artículo 1 de este decreto foral-norma, por las inversiones y gastos realizados en 2020, no en la autoliquidación correspondiente a dicho ejercicio sino en la correspondiente al ejercicio inmediato siguiente.

En tal caso, los contribuyentes deberán descontar el importe de la deducción generada en el ejercicio anterior por esas mismas inversiones y gastos, correspondiente a la deducción para el fomento de la implantación de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, prevista en la citada disposición adicional.

2. Lo dispuesto el apartado anterior será igualmente de aplicación a las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente que, por remisión de la disposición adicional trigésima sexta de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y de la disposición adicional décima de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, respectivamente, hayan aplicado la deducción establecida en la disposición adicional vigesimosegunda de la citada Norma Foral 2/2014, por las inversiones y gastos realizados durante el ejercicio 2020.

*Disposición adicional segunda. Deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI.*

Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejerzan actividades económicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente que hayan aplicado la deducción para la transformación digital del comercio minorista, prevista en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, podrán aplicar en sus términos la deducción prevista en el artículo 2 de este decreto foral-norma, por las inversiones y gastos realizados durante el ejercicio 2020, no en la autoliquidación correspondiente a dicho ejercicio sino en la correspondiente al ejercicio inmediato siguiente.

En tal caso, los contribuyentes deberán descontar el importe de la deducción generada en el ejercicio anterior por esas

kontatu beharko dute, txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkariari dagokiona (aipatutako foru dekretu-arauaren 15. artikuluan jasota dago).

*Xedapen indargabetzaile bakarra.*

Foru dekretu-arau hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta gelditzen dira foru dekretu-arau honetan jasotakoaren aurka doazen xedapen guztiak eta, bereziki, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauaren 4. eta 5. artikulua eta lehen eta bigarren xedapen gehigarriak.

*Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.*

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaie foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

*Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.*

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Dena den, 1. eta 2. artikuluek eta lehen eta bigarren xedapen gehigarriek 2021eko martxoaren 24tik aurrera izango dituzte ondorioak.

Donostia, 2021eko uztailaren 27a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA  
DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Jokin Perona Lerchundi.

(5206)

mismas inversiones y gastos, correspondiente a la deducción para la transformación digital del comercio minorista, prevista en el artículo 15 del citado decreto foral-norma.

*Disposición derogatoria única.*

A partir de la entrada en vigor del presente decreto foral-norma quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en el presente decreto foral-norma y, en particular, los artículos 4 y 5, y las disposiciones adicionales primera y segunda, del Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, de medidas tributarias extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación y digitalización de la actividad económica.

*Disposición final primera. Habilitaciones normativas.*

Se faculta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

*Disposición final segunda. Entrada en vigor.*

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, los artículos 1 y 2 y las disposiciones adicionales primera y segunda surtirán efectos a partir del 24 de marzo del 2021.

San Sebastián, a 27 de julio de 2021.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE  
HACIENDA Y FINANZAS,  
Jokin Perona Lerchundi.

(5206)